

Artium Museoko Liburutegi eta Dokumentazio Zentroa ikertzeko, ikasteko eta edukiak nahiz esperientziak sortzeko gune bat da, eta bertako baliabideak eta zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonengan jartzen du arreta.

Kultura eta arte garaikidearen esparruan eduki eta zerbitzu digitalak sortu eta zabaltzea sustatzen da bertan. Jarduera-ildo horren barruan, informazio-estrategia bat garatzen ari da, oinarritzat duena Museoko bildumaren eta erakusketen harira sortutako dokumentazio guztia sustatu eta indartzea.

2019an, *Zeru bat, hamaika bide: Praktika artistikoak Euskal Herrian 1977-2002 aldian* erakusketaren dokumentazioa landu zen. 2020ko otsailean inauguratutako erakusketa horren muina Artium Museoko bildumaren funtsak dira, eta euskal testuinguruan garatutako praktika artistiko eta kulturei buruzko gogoeta zabala proposatzen du.

Erakusketak erantsita darama dokumentazio ugari, zeinaren xedea baita praktika artistiko garaikideak hobeto ulertzeko lagungarriak diren une eta gertaera historikoak indartzea. Ildo horretan, erakusketaren proiektuarekin lotutako azterketa eta dokumentazio-lana egin da; horrek erakusketa testuinguruan kokatzen lagun dezake, Museoaren ekintza-eremua zabal dezake, eta ikerketarako, eztabaidarako eta pentsamenduaren hedapenerako zentro gisa dituen funtzioak indartu ditzake.

Erakusketaren azterketa-eremuko artisten, lanen eta gertaera kulturalen artean sortzen diren eragin-harremanak ezagutzera emateko asmoz, denbora-lerro bat osatu da, erakusketako lanen testuingurua ezagutu ahal izateko. Denbora-lerro horri esker, testuinguruan kokatuta bisita dezakegu erakusketa.

Artium Museoko Liburutegi eta Dokumentazio Zentrotik erakusketa bibliografikoak antolatzen dira urtero, funts eskuratu berriak aurkezteko.

2019an, *Argitalpen-proiektuak eta artista-liburuak* erakusketa programatu zen. Artiumeko erakusketa bibliografiko horrek artista garaikide ezagunen argitalpen-proiektuekin lotutako funts erosi berrien sorta bat aurkezten du.

2020an, birtualki bakarrik programatu da *Argitalpen-proiektuak eta artista-liburuak II: Caniche Editorial, Consonni eta Entreascuas* erakusketa bibliografikoa. Erakusketak Artium Museoko Dokumentazio Zentroko argitalpen berezi batzuk biltzen ditu, eta ibilbide bat eskaintzen du Caniche, Consonni eta Entreascuas argitaletxeen lanean barrena.

Era berean, Dokumentazio Zentrotik Artiker garatzen ari dira, Artium Museoko ondare dokumentala zabaltzeko eta ezagutzeko tresna bat. Museoko funts dokumentalen, jardueren eta edukien kudeaketa eraginkorragoa eta ezagutza nahiz hedapen hobea lortzea helburu, bereziki lantzen ari dira proiektua osatzen duten material eta bilduma guztien sistematizazioa, katalogazioa, digitalizazioa eta hedapena.